

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA 2025 - KATEKESIA

Goiburua: Misioa: eginbide eta itxaropena - La Misión: compromiso y esperanza

Katekesirako gida

Helburuak:

- Munduko gizaki guztiok elkarren premia dugula ikusi eta, bereziki, pobretasuna, bakardadea, desberdintasuna eta bidegabekeriak jasaten dituztenak behar gaituztela.
- Jesusek, guztiok zorioneko izango garen familia handia eratze aldera, gure lankidetzak eskatzen duela sentitu. Jesus bidelagun dugu. **ITXAROPENA**
- Familian, eskolan, adiskideen artean, parrokian, auzoan..., laguntza ematea garrantzitsutzat hartu, eta mundu hobearekin egiten lagundu (**KONPROMISOA** zehaztu)

Oharra: *Hasieran, ez erakutsi kanpainako kartela. Katekesian agertuko dugu apurka-apurka.*

Ikusi

-Diapositiba (1)

Zenbait pertsonaiaren irudia aurkeztu taldekideei. Istorioa osatzen duen irudiak agertzen dituztenekin. Izenak proposatuko ditugu: **haurra (Kazule); pertsona nagusia (Jon); afrikar neska (Muxima); amerikar neska (Amancay).** Istorioak jaso.

Ezagutu nahi duzu pertsona hauen istorioa? Marrazkiak ikusita, zer kontatu dezakegu horietako bakoitzari buruz?

-Diapositibak (2-3)

Istorioa osatu agertuko diren irudiekin: Pertsonaia bakoitzak hartu-eman du beste lagun batzuekin jarrera solidarioan, hurbildu, elkarri eskua emango diote:

Zer gehi diezaiokegu **Kazuleren** istorioari irudi honekin? Amak zaindu egiten du.

Zer gertatu da **Jonen** istorioan, irudi berri honetan? Adiskideak lagun egiten dio.

Zer esan dezakegu orain **Amancay**? Poza familian.

Eta **Muximaren** familian, zer aldatu da irudi berri hau ikustean? Norekin elkartzen da? Zer egiten dute? Beste lagunaren bila ateratzen dira, desberdina izanik ere?

-Diapositiba (4)

Elkar laguntzen dutela ikusten dugu irudi guztietan:

Eta pertsonaia berri hau, nor da?, non bizi da? Zertan datoz bat pertsonaia?

Epaitu

Hemen eta edozein herrialdetan, elkar behar dugu. Ona da mugak zabaltzea, besteen bila ateratzea, batez ere hemen ditugun aukera berak ez dituztenen bila joatea, elkar eusteko, elkarrengandik ikasteko...

Esandakoa kontuan hartuta, osatu:

Zer deritzagu pertsonaia hauek egiten dutenari? Beren izaera hori gustuko izango ote zukeen Jesusek?

Zer diosku Jesusek?

-Diapositiba (5)

Mk 16, 15 *“Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei”*

Zer diosku Jesusek gutariko bakoitzari?

Zertara deitzen gaitu Jesusek?

Misiolariak bizia eta fedea **ESKAINTZEN DUTE** beste leku batzuetan bizi diren gure anai-arreben alde, elkarrekin zuzentasun eta senidetasun handiagoko mundua eraikitzeko, anai-arreba, Jainkoaren seme eta alaba sentitzeko denona den etxean... Eta garrantzitsuena, Jesus bidelagun dugula. Horrek **ITXAROPENA** ematen digu.

Ekin

- Misiolariak dei egiten digute ingurukoekin -adiskide, senide, auzotarrekin...- gertuko eta abegitsu izan gaitezen. Guztiontzako mundu hobea egiteko, urrats txikiak eman ditzakegu. Urrats guztiak dira garrantzitsuak.

-Konpromisoa zehaztu

-Kartela banatuko diegu koloreztatzeko.

